

Anuntxi Arana

Gizakunde ez da Emakunde

Euskararen erabilera ez sexista” gida liburua argitaratu du berriz Emakundek, eta goresmenak zor zaizkio lan hori eginik. Salbu, “pertsona” adierazteko “giz-” erroa hautatzen duela, lehenago erabiltzen zen “gizon” sexista delako eta baztertu beharrekoa. Emakunderen iritziz, “giz-” eta haren eratorriak (gizaki, gizarte, gizakoi etabar) egokiak dira, generiko gisa, gizonak zein emakumeak denotatzeko.

Gidaren egileak gatzigatzen du batzuk ez direla horrekin ados eta, haien ustez “giz-” edo “gizon” berdin baita, “jende” proposatzen dutela zentzu neutroan, bai eta baliatzen ere bere eratorri guztiekin (jendarte, jendaki, jendakin...). Erabilera hori, ordea, ez dela handia oroitarazten digu Emakundek.

Alabaina, Lhanderen hiztegian eta esperientziaz ikasi dudanez, zinez baieztatzeko, artikuluak diotenaren kontra, “jende” ez dela Iparraldeko leku batzuetan bakarrik erabiltzen, baizik eta Iparralde osoan; “giz-”, aldiz, ez dugu ia inoiz aurkituko, generiko gisa, herri tradizioan –Hegoaldean ere ez, bestalde–. Tradizio jakintsuak du erabili, bai generiko gisa eta bai maskulino huts gisa ere, “nire giza”, adibidez, “nire senarra” adierazteko.

Emakunderen jarrera ez da berria, eta Miren Azkarateren “Emakumea eta euskara” 1992ko lanean bermatu zela uste dut. Euskaltzainak akatsak ikusten zizkion “jende” hitzari, esanahi desberdinak dituelako (polisemikoa da) eta, Iparraldeko hitza izanik, ez zuelako batere biderik egin. “Giza-” ere polisemikoa dela aitortu zuen (noiz neutroa, noiz maskulinoa). Baina horri ez zitzaion garrantzi soberarik eman eta “giza-” hobetsi zen, menturaz euskaldunen borondateak neutro egingo zuelakoan.

Geroago, 2000. urtean, Iparraldeko talde feminista batek “jende” erroa proposatu zuen ohizko “giza-”ren lekuan. Eta hori dute hautatu Iparraldeko idazle eta itzultzaile batzuek, baita, Hegoaldeko zenbait ere: feministen aholkuei jarraiki zaizkien abertzale ezkertiarrek batik bat. Euskararen establishment, berriz, ezeztzean dago beti.



GAIZKA IROZ

Hizkuntzek beren bidea egiten dutela gogorarazten digu Emakunderen idazkiak. Egia. Gero, delako bideek autopista bilakatzeko joera badute kanpoko bultzakoei esker, Emakunderen aukerari esker, gure kasuan. Guk beste aukera bat egin dugu: “giza” eta “jende” hitz polisemikoen artean, kutsu sexistarik ez duena nahiago izan dugu. Sexistari lehentasuna ematea, gehien usadioa delako, doi bat inmobilita eta konformista iruditzen zaigu; hizkuntzak etengabe aldatzen baitira, hobe bidezko aldera zirkin egitea, politika-zuzentasunaren beldur izan gabe. Arazoa ez baita zuzentasuna, baizik eta haren zentzuan lortu diren apurak oso erraz joaten direla atzera. Eta ez zaigu pozgarri Emakunde ere ikustea gutxi batzuek urratu duten xendratxoan oztopoak ezartzen.



Baztango inauterietan badituzte hiru egun ospetsuak:
Emakunde, Gizakunde eta Orokunde. Emakunde emakumeei dagokie, Gizakunde gizonei; eta inori ez zaio burutzen Gizakundea Orokunde dela. Orokunde bat nahi dugu, hizkuntzan ere, eta ‘jende’ erroak eskaintzen digu



Zuzentasun linguistikoa dela eta, *Berria* egunkarian (VI/22) Jon Urruxulegik dio “jende” hitza eskasa dela eratorriak eta konposatuak egiteko, “gizalege”, “gizatasun” eta horrelakoen baliokide. Alta, hamaika baditugu, gorago aipatuez gain. *No problem brother*, aski da hiztegi onetan bilatzea.

Baztango inauterietan badituzte hiru egun ospetsuak: Emakunde, Gizakunde eta Orokunde. Emakunde emakumeei dagokie, Gizakunde gizonei; eta inori ez zaio burutzen Gizakundea Orokunde dela. Orokunde bat nahi dugu, hizkuntzan ere, eta “jende” erroak eskaintzen digu. Onartzen badugu, euskarak ez du sufrituko, alderantziz, estetikan irabaziko. Ezetz “jendetasun” baino hitz ederragorik aurkitu berak esaten duen guztia esateko! ■